

## ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Gizarte Gaietako zinegotziak baieztatu duenez, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan 1.000 pertsona inguru daude errolatuta. Hori da, hain zuzen ere, Idoeta andreak erantzun ziguna. 1.000 pertsona inguru, esan zuen.

Batzordean 1.000 pertsona horietako askoren pasaporteak eta dokumentazioa zaintzeko jardunbideari buruz galdetu genion zinegotziari, ohiko jardunbidea dela susmatzen baitugu, eta hark halaxe dela baieztatu zuen, eta berretsi GLZak 600 dokumentu inguru zaintzen dituela. Ez zuen esan zehazki zenbat, eta adierazi zuen batzuk pasaporteak eta identifikazio-dokumentuak direla, baina beste batzuk askotariko dokumentuak; kasuistika horretatik, Osakidetzaren txostenak aipatu zituen.

Pasaporteak zaintzea ez da sartzan gizarte-zerbitzuei legez esleitutako eskumenetan.

Administrazioek legez gaituta dauden hori bakarrik egin dezakete (Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua eta administrazio-printzipioak).

Eta, Gizarte Zerbitzuen araudiaren arabera, jatorrizko dokumentazioaren zaintza ez da sartzen haien laguntza-eginkizunen barruan. Horrek esan nahi du, horretarako onespena izan arren, jarduera hori legez kanpokoak izan daitekeela, eskumen edo xede faltagatik.

Informazio eta Ikerketa Sozialeko Zerbitzuaren (SIIS) arabera, Donostian 48 pertsona bizi ziren kalean. 2024an, 413 pertsona identifikatu zituzten kale-egoeran. Goiaren hamarkadan etxerik gabeko biztanleria % 760,4 hazi zen.

Hala ere, Donostiatik hurbil dauden udalerrri handi samarrek, hala nola Irunek eta Erreterriak, ez dute izan Donostian izan den igoera handi hori. Erreterrian, lokalizatutako pertsonen kopurua nahiko egonkor mantendu da, eta Irunen gorakada txiki bat izan da. Nolanahi ere, zifra horiek 2014koen oso antzekoak dira.

Hori ere gobernu-talde honen erantzukizuna da, ez baitu jakin beste alderdi politiko batzuetako udalek jardun duten bezala jarduten. EAJk agintzen ez duen lekuetan, etxegabeen kopurua ez da handitu.

Alderatu al ditu Donostiako Udalak gizarte-zerbitzuen eta segurtasunaren arloan dituen politika publikoak auzoko beste udalerrri batzuetakoekin, hala nola Irunekin edo Erreterriarekin? Zer egiten ari dira haiek zuek egiten ez duzuenik?

Hori dela eta, hauxe da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio gizarte-zerbitzuen politiken, erroldatze-baldintzen eta segurtasun-politiken analisi konparatua egin dezala Gipuzkoako 20.000 biztanletik gorako udalerrien artean.
2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio gizarte-zerbitzuek, beharrezkotzat jotzen badute eta interesdunek baimentzen badute, eskaneatu ditzatela erabiltzaileen identifikazio-dokumentuak, egin beharreko administrazio-izapideak egiten hasi ahal izateko.
3. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio debeka diezaiola Udalarekin lotura duen edozein sail, enpresa edo erakunderi herritarren jatorrizko identifikazio-dokumentazioa zaintzea.
4. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio debeka dezala Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek herritarren jatorrizko identifikazio-dokumentazioa zaintzea.

Donostia, 2025eko azaroaren 21a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea